

hitza . . .

Idiazabal jatorriko
ARTZAI GAZTA
OPARI!



iragarkilaburrak.com

Larunbata, 2014-09-06

hitza info
Donostiako informazioa euskaraz

Nabigazioa



Sebastian Lizaso: "Donosti beti da berezia, egun honetan gehiago"

by Estitxu Zabala on 2014/09/06 in JAIK

Eguraldi ona lagun, sagardozale ugarik bat egin dute Konstituzio plazan, Euskal Jaien barruko Sagardo Egunaren harira.



Ehundaka sagardozale elkartu dira Konstituzio plazan. (Argazkia: Estitxu Zabala)

Euskal Jaietan hutsik egin ezin duen urteroko jaia da Sagardo Eguna. Eguraldiak lagunduta, ehundaka sagardozale hurbildu dira aurtengoa ere Konstituzio plazara, sagardoaz eztarriak freskatzera. Jan edanerako aukerarik ez zen falta, izan ere, 35 sagardotegietako sagardoa eta pintxo ugari zeuden herritarren eskura. Hala, Sebastian Lizaso bertsolariak kantatu duen moduan, "Donosti beti da berezia, egun honetan gehiago". Gainera, Estanga trikitilariek eta Oreka TX taldeko kideek jarri diote doinua egunari, eta une hunkigarriak ere izan dira tartean, sagardogileek sagar ekoizleei egindako omenaldian. Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak antolatu du Sagardo Eguna, Donostia Kulturaren eta Laboral Kutxaren laguntzarekin.

Plazako arkupe bakoitza sagardotegi bateko ordezkariak bete dute, Lizeaga, Kalonje, Zabala, Petritegi... arkupeen bestaldean berriz, festazaleak, euren edalontziak nork beteko zain. Zehazki, 11:00etan hasi da sagardoaren jaia, eta 14:00ak inguruan bukatu da. Liburutegi Nagusiaren sotora hurbildu dira interes bereziagoa zuten sagardozaleak. Izan ere, sagar mota bakarrez egindako sagardoak dastatzeko aukera egon da bertan, Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak, EHUko kimika fakultateak eta sektoreko enologo eta teknikari talde batek egindako azterketaren ondorioak entzuten zituzten bitartean.

Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak sagastietan egiten den lana goraipatu nahi izan du gaurkoan, eta horregatik, sagar ekoizleak omendu ditu. Hala, Antxon Mendia Fruitel Frutagileen Elkarteko presidenteak jaso du oroigarria gaurkoan, plazan jarritako taulan. Unai Agirrek abestu du sagardogileen elkartearen izenean egindako bertsoa, eta aurrekua ere eskaini diote Mendiari.

Hauxe izan da sagardogileek sagar ekoizleei eskainitako bertsoa: "Txalaka, Moko, Mokote, Txistu / Urtebia, Gezamina / Baztan Sagarra, Frantses Sagarra / Errezila, Palestrina... / bakoitza degu garrantzitsua / bakoitza da desberdina / bilakaera luzea eta / garapenak eragina / inork ez daki jatoria ta / inork ez daki adina / omenaldi bat sagarzialeoi / lana eskertzeko dina / Elkar hartze hau izan dadila / gure lanabes haundina / upeltegian borobiltzen da / sagastietan egina".

BERRI HONEKIN LOTUTA:

◦ [Sagardo Eguna, iruditan](#)

📍 Euskal jaiak, Konstituzio plaza, Sagardo Eguna, Sagardoa

◀ Bera Bera Eskubaloia Superkopa irabazi du, laugarren aldiz

Sagardo Eguna, iruditan ▶

Profile

Sign in with Twitter Sign in with Facebook

or

Name

Email

Not published

Website



CAPTCHA Code *

Post It



Bilatu zure inguruko ostatua

Ostatua...

Bilatu

LABURRAK

Tomas Alba oroituko du Sagueseko plaza batek

Ulia, Goizueta eta Artikutzara irteerak

Irailaren 13an ospatuko den Koxk! festarako boluntarioen kanpaina abian da

BILDUMA: ASTE NAGUSIA 2014



IRUTXULOKO HITZAREN DENDA




BIDEOAK



Zezensuzkoen entzierroaren 30. urtemuga

0:48





Bizikrossa

2:29



Aitor Mendiluze eta Beñat Gaztelumendi bertsotan

5:27

LORETOPETIK



AuZOgestioa

Markel Ormazabal, musikaria Sants (Bartzelona)...



Unai Elizasu: 'Gaiso'

Aurreko zutabean bezala, gaur ere hitz berri...

Irakurri guztiak

BILATU

Bilatu...



26°C

Gaur **26°C** 16°CBihar **25°C** 18°CAstelehena **24°C** 18°C

© Tutiempo.net

Más »

BILDUMA: GIZA KATEA



IGELDOREN DESANEXIO PROZESUA



URTEKARIA 2013



AUZOAK

[Aiete](#) | [Altza](#) | [Amara](#) | [Amara Berri](#) | [Amara Osinaga](#) | [Amara Zaharra](#) | [Anoeta](#) | [Añorga](#) | [Añorga Txiki](#)
[Antigua](#) | [Antiguo](#) | [Ategorrieta](#) | [Bidebieta](#) | [Egia](#) | [Erdialdea](#) | [Errotaburu](#) | [Gros](#) | [Herrera](#) | [Ibaeta](#) | [Igara](#)
[Igeldo](#) | [Illunbe](#) | [Intxaurrenondo](#) | [Kaia](#) | [Larratxo](#) | [Loiola](#) | [Loiolako Erribera](#) | [Loiolako Erriberak](#)
[Martutene](#) | [Miramon](#) | [Morlans](#) | [Parte Zaharra](#) | [Puio](#) | [Sagues](#) | [Txomin](#) | [Txomin Enea](#) | [Ulia](#) | [Urgull](#)
[Zorroaga](#) | [Zuatzu](#) | [Zubieta](#)

POPULARRAK

EKARPENAK

- Sagardo Eguna, iruditán
2014/09/06
- Sarriegi plazarako segurtasun neurri gehiago eskatu ditu EAJk
2014/09/04
- Jose Luis Arrue: "Arraunak ez al du omentzea merezi?"
2014/09/04

BERRIKETAN.INFO [RSS]



[Eskunabarra](#)

posted an update in the group

[Donostia 1813-2013](#)

3 days ago

Donostia 1813 sua itzali memoria piztu 2014-9-6an larunbata 19:00etan egingo den ekitaldia

<http://donostia1813-2013.blogspot.com.es/2014/09/sua-itzali-memoria-piztu.html>



[Eskunabarra](#)

posted an update in the group

[Donostia 1813-2013](#)

3 days ago

Donostia 1813 kalean paratu diren panelak 201 urte Donostia Sutan <http://donostia1813-2013.blogspot.com.es/p/blog-page.html>


Eskunabarra

posted an update in the group

Donostia 1813-2013

3 days ago

Donostia 1813 isildutako sarraskia ekitaldia plaza Berrian 2014-8-30

Unai Oiartzun

posted an update

5 days, 2 hours ago

ATLETISMOA: Ariznabarreta eta Rubio izan dira azkarrenak Guadalupen
<http://kiroletikblog.blogspot.com.es/>

Eskunabarra

posted an update

5 days, 7 hours ago

1813ko Abuztuak 31 Donostian biktimei omenaldia 201. urtean, Zortziko berria, alegia garaiko erreserki zaharra





IRUTXULOKO HITZA (2014-09-05)

- Xabier Zabala (Donostiarrako entrenatzailea): "Uste dut segurtasunarekin iritsiko garela igandera"



- Lau solairu eta 20 metroko altuera izango ditu gehienez Altzako kiroldegi berriak
- Axel Hutte argazkilari alemaniarrari eskainitako erakusketa ikusgai dago San Telmo Museoan
- Nestor Basterretxea eskultorea ardatz izango dute Euskal Jaietan

ALBISTE GUZTIAK IRAKURRI

AUZOETAKO JAIK



KIROLA

Bera Bera Eskubaloiak Superkopa irabazi du, laugarren aldiz

Kaiku, Bermeo, Hondarribia, Orio, Cabo da Cruz, Portugalete eta San Juan izango dira Kontxan

Jose Luis Arrue: "Arraunak ez al du omentzea merezi?"

Kontxarako txartela lortzen saiatuko dira 32 traineru

KULTURA

Datorren ostiralean jarriko dituzte salgai Zinemaldiko lehen sarrerak

Antonio Banderas, John Malkovich eta Viggo Mortensen ere Donostiara etorriko dira

Tabakaleran sortuko den plaza berriari Nestor Basterretxea izena jarriko diote

Mafalda gazte mantentzen da

AISIA

Nestor Basterretxea omenduko dute Euskal Jaietan

868 hurrek hartuko dute parte 'Oporretan Euskaraz' udalekuetan

Ulia Interpretazio Zentroak hainbat berrikuntza eskainiko dizkio bisitariari

Herrerako frontoian bildu dira garagardozeak

GIZARTEA

Jose Luis Arrue: "Arraunak ez al du omentzea merezi?"

Oraitz Garcia: "Sukaldeak kalera aterako ditugu"

Lau solairu izango ditu gehienez Altzako kiroldegi berriak

Ehunka herritarrek bat egin dute eraso sexista salatzeke mobilizazioarekin

EKONOMIA

Kultur Hiriburutzak tokiko moneta osagarri bat sor dezake hirian

Decathlonek igande eta jai egunetan irekitzeko azaldutako asmoaren aurka egin dute protesta

Kale Nagusia, Euskal Herriko lehen kale adimenduna

Sustapenak 8.000 euro arteko bonu teknologikoak eskainiko dizkie hiriko enpresa eta ekintzaileei

POLITIKA

"Gaixotasun larriak dituzten presoak kalean nahi eta behar ditugu"

Kaia berritzeko eskatu du PPK

Sortuk ekitaldi bat egingo du bihar Bulebarrean, 'Bateragune auziko' erabakia salatzeko

Sakabanaketak urtean eragindako zortzigarren istripua salatu du Etxeratek

© Donostiako Hedabideak, S.L.
Katalina Eleizegi 36 behekoa - Donostia - Tel.: 943-467236 - Faxa: 943-446532 - Posta:
donostia@hitza.info



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**



**Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián**
Euskara Zerbitzua



Irutxuloko Hitzako edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratzeko libre zara, beti ere, gure egiletza direla aitortzen baduzu eta baldintza beretan egiten baduzu.